

janariak (haragia, arrain freskoa, haurrentzako janariak, olioak, jogurta, pasta edo kontserbak) familiek janarietan gastatzen dutenaren %64,2 suposatzen dute. Ondorioz, zerga %21era igotzeak 600 euro gehiago suposatuko lituzke, urtean, familia bakoitzarentzat.

Espainiar gobernuak ukatu egin du behin eta berriz igoera horiek aurrera eramango dituela, baina PFEZak eta Sozietateen gaineko Zergak behera egiten badute, gero eta aukera gehiago daude BEZaren igoera gauzatzeko.

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA

Urte hasiera honek beste aldaketa bat ere ekarri digu zerga arloan, kasu honetan, Europa mailan. Izan ere, ondasun digitalak Internet bidez saltzen dituzten enpresek eroslearen herrialdeko BEZa aplikatu beharko dute aurrerantzean eta ez enpresa saltzailea finkatuta dagoen herrialdekoa. Kontsumitzaileen elkarteek diote-



Ondasun digitalen kasuan ere aldaketak izango dira 2015. urtean. Aurrerantzean, eroslearen herrialdeko BEZa aplikatu behar da, eta ez enpresa saltzailearen herrialdekoa.
GAUR8

Espainiar gobernuak aukera hori ukatu egin duen arren, PFEZak eta Sozietateen gaineko Zergak behera egiten badute, gero eta aukera gehiago daude BEZaren igoera gauzatzeko

Modu honetan, gaur egun %10eko tipoa duten produktu gehienak %21era pasatuko lirateke, eta oinarritzko produktuak biltzen dituen %4ko zerga murriztua ere %10era pasatuko litzateke

nez, aldaketa honek prezioen garestitzea ekarriko du, mota honetako salmenta gehienak egiten zituen enpresak, Amazon-ek, Luxenburgoko zerga aplikatzen baitzuen (%3koa), bertan baitu bere egoitza fiskala. Orain, ordea, liburu elektronikoa bat erosi nahi badugu, %21eko zerga ordaindu beharko dugu. Berdin gertatuko da mugikorren aplikazioen kasuan, joko elektronikoetan edo musikan, besteak beste.

Aldaketa honekin, Europako Batzordeak konpetentzia desleiala ekidin nahi duela dio eta, bide batez, multinazionalak dituzten abantailak murriztu. Baina, bestalde, erabaki honek lan handiagoa suposatuko du enpresa txikientzat, eroslearen herrialdeetako datuak bilatu beharko baitituzte. Lan hori errazteko, leihatila bateratua irekiko dute foru ogasunek, BEZaren likidazio bateratua egin ahal izateko. Ondoren, ogasunak arduratuko dira dagokien zatia beste estatuetara bideratzeaz.

Ez nire izenean

Antton Izagirre

Charlie Hebdo» aldizkariaren aurkako eraso hilgarriaren aurrean frantziarrek erakutsi duten salaketa, elkertasun, dolu, nahigabe, haserre eta saminaz baliatuz, Mendebaldeko estatuek, komunikabide gehienek laguntzaz, beste behin ere, mundua bitan banatzeko joera eta boterea indartu nahi izan dute: onak eta gaiztoak, arrazionalak eta irrazionalak, ordenaren jabe direnak eta ordena ezarri behar zaienak, demokratikak eta ez-demokratikak....

Ezer baino lehen esan dezadan, borondate onez bere salaketa adierazi duten gizon-emakume guzti horiekin bat egiten

dudala, baina aldi berean pentsamendu bakarra ezartzearen aurka altxatu diren ahots guztiek gure atxikimendua merezi dute.

Ahots horien artean asko izan dira estatuburuak besoz beso elkar hartuta manifestarien buru jarri izana arbuiatu dutenak, beren estatu politikek eragiten dituzten sarraskiak eta heriotzak gogorazki dizkietenak. Komunikabideek gordin-gordin erakutsi dizkigute Parisen hildakoei, ez horrela Estatu frantsesak berak, Estatu Batuek edota Israelek sustatzen dituzten gatazka eta gerretan eragindako hildakoei, zaurituak eta suntsiketak. Bizi-

tzaren balio desorekatua: justiziaz hildakoei eta hildako injustuak nonbait orain ere. Hipokritak!

Frantziako kaleetan, Ipar Euskal Herrikoetan ere, erasoaren ondorengo "Charlie Hebdo" berria erosteko grinak errenkada luzeak eragin ditu. Beharrezkoa ote zen adierazpen askatasuna defendatzeko ildo bereko karikaturak egiten jarraitzea? Adierazpen askatasunak giza talde ahulenen sentimenduak ez mintzeari ere erreparatu beharko lioke. Badu Frantziak boteretsuagoen bizkar non satira egin. Baina boteretsuenen itzala luzea denik ez dago zalantzarik. •